



Informazio Publikoaren Sarbidetako Euskal Batzordearen jarduera 2022ko ekitaldian

2016ko irailaren 16an, [Informazio Publikoaren Sarbidetako Euskal Batzordeari buruzko irailaren 13ko 128/2016 Dekretua](#) argitaratu zen. Dekretuaren helburu bakarra da erantzuna ematea herritarrek informazio publikoa eskuratzeko aurkeztutako eskaerari lotuta dagokion jardun-eremuko EAEko administrazio publikoak informazioa ukatzeko emandako ebazpenaren aurrean (berariazkoa nahiz ustezkoa) administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren aurretik aurkez ditzaketen erreklamazioei.

[Herri Administrazio eta Justiziako sailburuaren 2016ko urriaren 6ko Aginduaren](#) bidez, osatu egin zen IPSEB, eta kide bat berritu zen [Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren 2017ko azaroaren 15eko Aginduaren](#) bidez, bai eta beste kide bat ere, agintaldia amaitu zelako, [Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren 2021eko uztailaren 7ko Aginduaren](#) bidez.

2021eko ekitaldian aldaketa bat egon zen presidentetzan, [8/2021 Dekretuak, urtarrilaren 19koak, Gobernantza eta Autogobernu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duenak](#), Gobernu Irekiaren Zuzendaritzari esleitu baitzion Batzorde horren presidentetza; ordura arte Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritzak zuen. Presidente berria [apirilaren 20ko 129/2021 Dekretuaren](#) bidez izendatu zen, eta 2021eko maiatzaren 24ko bilkuran sartu zen Informazio Publikoaren Sarbidetako Euskal Batzordean.


Jarraian, Informazio Publikoaren Sarbidetako Euskal Batzordearen 2022ko memoriatik ateratako informazioa azaltzen da.

Erreklamazioak, erreklamazioaren xede izan den erakunde motaren eta 2016-2022 aldian emandako ebazpen motaren arabera.


2022ko ekitaldian 160 erreklamazio jaso dira, baina 2023ko ekitaldian ebatziko dira horietako 7; hortaz, ebatzitako 153ei buruzkoak izango dira datuak. Taula honetan ikusten da arreta jaso duten erreklamazioen bilakaera. Hala, taulan agerienez, hazkunde esponentziala izan zen 2016. urtetik 2018. urtera bitartean, 2019ko ekitaldian, berriz, behera egin zuen zertxobait, eta 2020. urtean berriro ere gora egin, eta nabarmen gora, aldiz, 2021ean eta 2022an.

URTEA	ERREKLAMAZIOEN EBAZPENAK	UDALEK INFORMAZIO- ESKAERARI EMANDAKO EZEZKOAREN AURKA	FORU-ALDUNDIEK INFORMAZIO- ESKAERARI EMANDAKO EZEZKOAREN AURKA	EAE-KO SEKTORE PUBLIKOAK EMANDAKO EZEZKOAREN AURKA	BESTE ERAKUNDE BATZUEK EMANDAKO EZEZKOAREN AURKA
2016	Baietsiak	1			
	Ezetsiak				
	Ez onartuak				
	Atzera egindakoak				
	Artxibatuak				
	Bideratuak		1		
Guztira	2	1	1	0	0
2017	Baietsiak	13	1	7	
	Ezetsiak				1
	Ez onartuak	3		3	
	Atzera egindakoak	1		2	
	Artxibatuak	1		1	
	Bideratuak				
Guztira	33	18	1	13	1
2018	Baietsiak	54		7	5
	Ezetsiak	5		3	
	Ez onartuak	9		4	
	Atzera egindakoak	12		1	
	Artxibatuak				
	Bideratuak				
Guztira	100	80	0	15	5
2019	Baietsiak	41		6	
	Ezetsiak	5		4	
	Ez onartuak	11		4	
	Atzera egindakoak	8			
	Artxibatuak	1		1	
	Bideratuak				
Guztira	84	66	3	15	0
2020	Baietsiak	29		29	
	Ezetsiak	1		15	
	Ez onartuak	6		11	
	Atzera egindakoak	3			
	Artxibatuak	2			
	Bideratuak			2	
Guztira	102	41	6	55	0
2021	Baietsiak	52		29	
	Ezetsiak	15		10	

	Ez onartuak	9	1	4	
	Atzera egindakoak	4		3	
	Artxibatuak				
	Bideratuak		1		1
Guztira	129	80	2	46	1
2022	Baietsiak	24		64	
	Ezetsiak	6		18	
	Ez onartuak	8	5	18	1
	Atzera egindakoak			2	
	Artxibatuak	2		5	
	Bideratuak				
Guztira	153	40	5	107	1
2016-2022, GUZTIRA	603	326	18	251	8
	2021era arte	% 63,5	% 3	% 32	% 1,5
	2022ra arte	% 54,06	% 2,99	% 41,63	% 1,33



Ikus daitekeenez, 2016tik 2022ra bitartean, **erreklamazioen % 54,06 EAEko udalek informazio publikorako sarbidea ukatzeagatik edo emandako informazioarekin desados egoteagatik dira, % 41,63 EAEko sektore publikoei lotuta daude**, eta % 4,3 beste erakunde mota batzuei, hala nola profesionalen elkargoei edo beste erakunde batzuei lotuta, zeinek Batzordera jotzen baitute, nahiz eta formalki foru-aldundietako edo estatuko gardentasuna bermatzeko organoetara jo behar duten.




2020. urtean, aldatu egin zen joera; izan ere, EAeko sektore publikoak informazioa eskuratzeari emandako ezezkoen edo emandako informazioarekin desados egotearen ondoriozko erreklamazioen kopurua (55) udalek jasotako kopurua baino handiagoa izan zen (41). 2021ean, ordea, aurreko joera errepikatu zen, eta, beraz, erreklamazio gehienak udalek sarbidea ukatzeagatik edo haiek emandako informazioarekin desados egoteagatik dira: 80 eta 46, hurrenez hurren.

2022. urtean, EAeko sektore publikoak informazioa eskuratzeari emandako ezezkoen edo emandako informazioarekin desados egotearen ondoriozko erreklamazioen kopurua (107) udalek jasotako kopurua ia halako hiru izan zen (40). Hainbat arrazoiren ondorioz, gobernu autonomikoak eskubide hori are gehiago zabaltzea, adibidez. Nolanahi ere, bi sindikatuk eta enplegatu publikoren batek egindako erreklamazioek, Eusko Jaurlaritzako negoziazio kolektiboarekin eta plantillak egonkortzeko prozesuarekin lotutako informazio-eskaerekin lotuta, izandako gorakada handia (51 erreklamazio) aipatu behar da; hori ez da gertatu udalei dagokienez.

Foru-aldundietako gardentasuna bermatzeko organoen erreklamazioak

Foru-aldundiak gardentasuna kontrolatzeko organo espezifiko bat dute (Arabako Foru Aldundian 2017an sortu zen; Bizkaikoan, 2016an, eta Gipuzkoakoan, 2019an), baina orain arte jarduera aski txikia izan dute, beren webguneetan argitaratuta dituzten ebazpenak ikusita. Berme-organo horiek nahitaez argitaratu behar dituzte horiek, [Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 24.5 artikulua](#)ren arabera. Taula honetan erakusten da hori:

URTEA	Gardentasunaren Foru Kontseilua Arabako Foru Aldundia	Erreklamazioen Batzordea Bizkaiko Foru Aldundia	Gardentasunaren arloko Erreklamazio Batzordea Gipuzkoako Foru Aldundia
2016			
2017			
2018	1	3	
2019	1	8	2
2020	4	7	3
2021	6	7	3
2022	5	13	1
GUZTIRA	17	38	9




IPSEBn jasotako erreklamazioen arrazoiak: administrazio-isiltasuna

Azpimarratzekoa da 2016-2022 aldian erreklamazio gehienen kausa dela egindako eskaerak ebazpenik garaiz jaso ez izana, hau da, administrazioaren isiltasuna. Izan ere, [Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 20.4 artikulua aplikatuz](#), erantzuteko gehieneko epea igaro eta berriazko ebazpenik eman eta jakinarazi ez bada, eskaera ezetsi egin dela ulertu behar da.

Erreklamazioen % 66 EAeko administrazioek garaiz ez ebaztearen ondorio dira, hau da, % 85 toki-erakundearen kasuan eta % 44 EAeko sektore publikoaren kasuan. Hau da, gehienbat toki-erakundeek ez dute oraindik beren administrazio-egituretan eta antolaketa-kulturan barneratu epe barruan ebazteko betebeharra, [Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 20.6 artikuluan ezarritakoari jarraikiz](#). Horren arabera, betebehar hori behin eta berriz ez betetzea «*arau-hauste astuntzat hartuko da, ez-betetze horien erantzuleei arauetan aurreikusitako diziplina-araubidea aplikatzeari dagokionez*». Erreklamazioen % 34 bakarrik dira emandako informazioarekin desados egoteagatik edo informaziorako sarbidea berariaz ukatzeagatik.

URTEA	ADMINISTRAZIO-ISILTASUNA				ERREKLAMAZIO KOPURUA		ADMINISTRAZIO-ISILTASUNAGATIK DIRENEN %
	UDALAK	FORU-ALDUNDIAK	ESTATUKO ADMINISTRAZIOA	EAE-KO SEKTORE PUBLIKOA	ADMINISTRAZIO-ISILTASUNAGATIK	GUZTIRA JASOTAKOAK	
2016	1	1			2	2	100
2017	14	1		11	26	33	79
2018	74			12	86	100	86
2019	53	1		3	57	84	68
2020	36	4		30	70	102	69
2021	66		1	27	94	129	73
2022	32	3	1	28	64	153	42
Guztira	276	10	2	111	399	603	66
Erreklamazioak, guztira	326	18	8	251		603	
Isiltasunagatik direnen %, guztira	85	56	25	44	Isiltasunagatik direnen ehunekoa erakunde motaren arabera jasotako erreklamazioei dagokienez		



EAEko sektore publikoko erakundeen erantzun-maila (% 56) tokikoena (% 15) baino nabarmen handiagoa bada ere, ezinbestekoa da informazio publikoa eskuratzeko eskaera guztiei erantzutea izatea helburua, [Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 20. artikulua](#) aplikatuz; izan ere, araua indarrean jarri zenetik 7 urte igaro dira, eta, [2015eko urtarrilaren 13ko Gobernu Kontseiluak](#) onartuta, antolaketa-eredua eta prozedura elektronikoa erabat ezarrita daude.


IPSEBn aurkeztutako erreklamazioen ebazpenak


IPSEBk emandako ebazpen moten gainean, nabarmendu behar da joerari eusten zaiola; izan ere, **2016-2022 aldi osoan, ebazpenen % 60,03 baiesleak ziren, % 17,24 ez onartzekoak eta soilik % 13,76 ezlesleak**. Beraz, pentsatzekoa da aurrera egin behar dela gardentasunaren kulturean, gure administrazio publikoak horren arabera jardun daitezten.

Ezespenen arrazoia da, kasu askotan, eskatutako informazioa ez dagoelako, eskatu zaion erakundearen eskumenekoa ez delako edo dagoena eman delako dagoeneko, baita informazioa eskuratzeko eskubidea tartean ez dagoen prozedura bat delako ere, edo baldintza formalak ez direlako bete. Oso gutxi ezesten dira [Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legeak 14. artikuluan](#) ezartzen dituen mugak aplikatzeagatik edo 15. artikuluan arautzen den **datu pertsonalen babesagatik.**

Ez onartuei dagokienez, arrazoia gehienbat da pertsonen interesa izatea prozedura irekietan eta haien informazioa berariazko araudiaren arabera jo beharra egotea; hori gertatzen da, adibidez, erreklamazioarekin batera Kontratu Errekurtsoen Administrazio Organoan (KEAO) aurkeztutako errekursoekin, bai eta epez kanpo aurkeztutako erreklamazioekin edo errepikakorrak direnekin, edo erreklamaziorik aurkeztea egokia ez denean aurkeztutakoekin. Gehiegizko eskaerak edo legearen gardentasun-asmoarekin justifikatzen ez direnak gutxiago dira.


ERREKLAMAZIOEN EBAZPENAK	UDALEK EMANDAKO EZEZKOAREN AURKA	FORU-ALDUNDIEK EMANDAKO EZEZKOAREN AURKA	EAE-KO SEKTORE PUBLIKOAK EMANDAKO EZEZKOAREN AURKA	BESTE ERAKUNDE BATZUEK EMANDAKO EZEZKOAREN AURKA	GUZTIRA	%
Baietsiak	214	1	142	5	362	% 60,03
Ezetsiak	32		50	1	83	% 13,76
Ez onartuak	46	13	44	1	104	% 17,24
Atzera egindakoak	28		8		36	% 5,97
Artxibatuak	6		7		13	% 2,16
Bideratuak		4		1	5	% 0,83
	326	18	251	8	603	% 100







Erreklamatzailen tipologia eta erabilitako interakzio-kanala

Erreklamatzailen % 62,7 gizonak izan dira 2016-2022 aldi osoan; **emakumeak % 13,8 bakarrik**, eta pertsona juridikoak % 23,5. Arlo honetan ere badago **genero-arrakalarik**, denbora erabiltzeko desparekotasunarekin lotuta agian; izan ere, emakumeek denbora gehiago ematen dute etxeko eta zaintzako zereginetan eta, ondorioz, aukera gutxiago dute espazio publikoan parte hartzeko; edo, agian, gizonen eta emakumeen artean oraindik dagoen arrakala digitalaren ondorioz, bitarteko elektrikoak erabiltzeko desparekotasuna bizkor txikiagotzen ari bada ere, erreklamazioak aurkezteko gehien erabilitako kanala elektronikoa baita. Legea eta herritarrek eskubideak erabil ditzaten erabilgarri dauden tresnak ez ezagutzeak ere eragina izango du segur aski.





Bestalde, **interakzio-kanal erabiliena elektronikoa da**: 2016-2022 aldian, **interakzioen % 84,9 egin dira hala**, postaz % 12,6 eta aurrez aurre % 2,5.



URTEA	Pertsona fisikoa		Pertsona juridikoa	Interakzio-kanala		
	Gizonezkoa	Emakumezkoa		Postaz	Aurrez aurrekoa	Elektronikoki
2016		1	1	1		1
2017	26	7		21		12
2018	82	16	2	23		77
2019	75	7	2	5	1	78



2020	57	16	29	8	14	80
2021	64	12	53	10		119
2022	74	24	55	8		145
Guztira	378	83	142	76	15	512
%	<u>62,7</u>	<u>13,8</u>	<u>23,5</u>	<u>12,6</u>	<u>2,5</u>	<u>84,9</u>

Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren aurrean errekurtoa jarritako IPSEBren ebazpenak

2016-2022 aldian, **Informazio Publikoaren Sarbidetako Euskal Batzordearen 8 ebazpenen aurka jarri da errekurtoa Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren aurrean;** horietatik, 5 2018. urteko espedientei buruzkoak dira, eta bana 2019., 2021. eta 2022. urteetako espedientei buruzkoak. Espedientetatik 6tan epaia eman da, eta **ezetsi egin da kasu guztietan Informazio Publikoaren Sarbidetako Euskal Batzordearen ebazpenaren aurka jarritako errekurtoa.** Kostuak alderdi demandatzaileari ezarri zaizkio.

Administrazioarekiko auzi- errekurtoa		Erreklamazioa ren espediente- zenbakia	IPSEBren ebazpen-zk.	Epaia		
Prozedura arruntaren zk.	Demandatzailea			Epai- zenbakia	Epaiza- data	Epaiza
667/2018	Bizkaiko Erizainen Elkargo Ofiziala	2018/000061	19/2018	62/2021	2021/02/17	Errekurtoa ezestea
70/2019	Oñatiko Udala	2018/000136	69/2018	379/2021	2021/10/19	Errekurtoa ezestea
75/2019	UPV/EHU	2018/000098	34/2018	369/2021	2021/10/05	Errekurtoa ezestea
134/2019	Red Ferroviaria Vasca-Euskal Trenbide Sarea ETS	2018/000123	57/2018	445/2021	2021/11/12	Errekurtoa ezestea
260/2019	Arrasateko Udala	2018/000176	3/2019	5/2022	2022/01/11	Errekurtoa ezestea
469/2020	FJAD	2019/000276	98/2019	505/2022	2022/10/22	Errekurtoa ezestea
874/2021	GGs	2020/000241	110/2020			
651/2022	MLP	2022/000171	51/2022			

Aurreko txostenetan jada esan dugun legez, nabarmendu behar da kontrol-erakunde hori, **Informazio Publikoaren Sarbidetako Batzordea, eginkizun oso mugatu batekin sortu zela, aldi baterako aurreikusten baitzen**. Hauxe zuen eginkizun: EAEko administrazio publikoek euren jarduketaren emandako ebazpen ez esle berariazko edo ustezko ororen aurka aurkeztutako aukerako erreklamazioei bakarrik erantzutea administrazioarekiko auzien jurisdikziora jo aurretik. Aldi baterako izaera horrek mugatu egiten ditu eman beharko lituzkeen bermeak, batez ere eskumenik ez duelako ematen dituen ebazpenen betetzearen gaineko jarraipena egiteko, (zehapen-ahalmenik ez baitu) ez publizitate aktiboaren betebeharrak ez-betetzeagatiko erreklamazioak kontrolatu eta ebazteko, ez eta sentsibilizazio- eta prestakuntza-ekintza beharrezkoen bidez eta arloan jarduteko irizpideak emanez gardentasunaren kultura sustatzeko ere, nahiz eta horrek guztiak EAEko administrazio publikoen multzoak jokabide homogenea izaten lagunduko lukeen.

IPSEB Gardena-Gardentasunaren Atarian

IPSEBk bere gune propioa du **gardentasunaren atarian** ([Gardena](#)) eta aldi behin eta eguneratuta argitaratzen du jarduketa publikoaren funtzionamenduari eta kontrolarekin lotuta dagoen jardueraren gardentasuna bermatzeko esanguratsua den informazioa. [Abenduaren 9ko 19/2013 Legearen, Informazio horri Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko](#)aren, 15. artikuluan jasotako mugak aplikatzen zaizkio, baita izaera pertsonaleko datuen babesetik eratorritakoak ere. Halaber, bere antolamenduari eta funtzionamenduari buruzko informazioa argitaratzen du, baita garrantzi juridikoa, ekonomikoa, aurrekontuetakoa eta estatistikoa duen informazioa ere.

Bere jarduerarekin lotuta, bere ebazpen eta akta guztiak argitaratzen ditu, eta honako hauei buruzko informazio osoa ematen du: erreklamazioaren ezaugarriak, sexua, sartzeko erabili den kanala; erreklamazioaren administrazioa; emandako, ukatutako edo ez onartutako informazioa; ebazpenaren zentzua eta ebazpenaren edukia betiere erreklamazioaren identifikazioa babestuz, baita erreklamazioaren sarrera-data eta ebazpen-data ere. Informazioa aurreko aldagai horietako edozein erabiliz bahetu daiteke, hartarako sarbidea irisgarria izan dadin, eta Open Data Euskadi formatu irekietan ere prestatzen da, berriz erabili ahal izateko.

Orobat, gune horretan argitaratuta daude IPSEBren ebazpenei jarritako administrazioarekiko auzi-errekurtsoen aurrean Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiak emandako epaiak. Legeak 3 hilabeteko epea ezartzen du erreklamazioak ebazteko, eta epe hori igarota, ezetsizat joko da. Hala ere, Batzordeak espedienteen instrukziorako bi kide baino ez dituen arren (dedikazio eskusiborik gabeko funtzionarioak, eta eginkizun horiek beren lanpostuari

dagozkion zereginekin txandakatzen dituzte), **erreklamazioak ebazteko batez besteko denbora muga horren oso azpitik dago**, hurrengo koadroan egiazta daitekeenez. Ikus daiteke, halaber, 2022koa dela ebazpen-epe laburrena, 38 egun.

URTEA	ERREKLAMAZIOAK EBAZTEKO BATEZ BESTEKO EPEA
2016	48 egun
2017	54 egun
2018	54 egun
2019	49 egun
2020	56 egun
2021	44 egun
2022	38 egun

